

KUDEAKETA ARLOKO AURREAKORDIOAK HEZITZAILEEN LANPOSTUAK SUNTSITZEN DITU

2018-2019 ikasturte hasieran Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa langileek beraien egoera blokeotik ateratzeko hasitako mobilizazio eta negoziazio prozesua amaitutzat eman nahi dute. Enpresak eta LAB sindikatuak, 2020ko urtarrilaren 9an, prozesua ixteko aurreakordia sinatu zuten. Sinadura horren ondorioz, langile hauen babes faltagatik eutsi ezina zen aldebakarreko hilabeteko greba deialdia bertan behera utzi zuen LABek.

Gauzak horrela, urtarrilaren 16an dokumentu honi akordio itxura eman nahi diote Maite Larrañagaren azken Mahai Negoziatzailean. Izan ere, egun horretan bertan jubilatuko da Haurreskolak Partzuergoko gerentea.

Egoera korapilatsu honen aurrean, **STEILAS** sindikatuak kudeaketa langileen gehiengo zabalarekin bat egin du, eta akordioa sinatu nahi duten terminoetan ezin dugu bat egin. Hauek dira langileek adierazitako arrazoiak akordioa ukatzeko:

- Hezitzaileen lanpostuak amortizatuko direlako.
- Departamentu guztietako lan kargak ez direlako kontutan hartu lanpostuen zerrenda egiteko.
- Hezkuntza Saileko langileekin soldata eta kategoria ekiparazioak ez duelako 2019ko irailetik atzeraeragina izango, adostu eta sinatu zen bezala.
- Lanpostu batzuen sorrera oraindik ez delako gauzatu eta onartuko diren bermerik ez dagoelako.
- Langileak egonkortzeko LEP prozesuari buruz ez dagoelako inongo aipamenik.

Lanean, negoziatzen eta mobilizatzen gogor jardun eta gero prozesu guztia nola bukatzen ari den ikusita gure atsekabea argi adierazi nahi dugu. Urte bete luzez lan izugarria egin dugu, 0-tik abiatu baikin Kudeaketa alorrean. Lan hori elkarlanean burutzen hasi ginen, LAB, **STEILAS** eta ELA sindikatuak enpresarekin batera sortutako batzordean.

Zoritxarrez, administrazioak bere kartak oso modu zikinean jokatu ditu, eta lan hori guztia gutxietsi eta gero, hau da mahai gainean dugun egoera. Aldebakartasunak eta umiltasun faltak elkarlana ezin gauzatzea dakar, eta horrela administrazioak irabazten du beti joko. Haurreskolak Partzuergoan ohikoak bihurtzen ari diren joko-arauak ditugu hauek. Enpresa eta administrazioa negoziatzeko beste marko baten aurrean ezinbestean jartzeko egin behar dugu lan, langileak garaile izan gaitezen.

Beraz, akordioak hainbat esparrutan izango du eragina. Ondorio nabarmenetako bi azalduko ditugu hurrengo lerroetan: hezitzaileen lanpostuen amortizazioa eta kudeaketa lanpostu berrien sorrera zalantzarria.

Gaur egun, 23 kudeaketa langile daude plantilan EAEko aurrekontuen arabera. Aurrekontu legearen 13.3. artikuluan oinarrituta, 2020ko otsailean 32 langile izango dira, eta 35 irailan, lege horren 13.4. artikuluari esker.

13.3. artikulua dio:

*"Orokorrean, aurrekontu-plantillak langile-zuzkidura berriak sortuz aldatzen badira, behar beste zuzkidura **amortizatu** egin beharko dira horren ondorioz, urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin"*

Honek dionari jarraituz, kudeaketa langileen plantila 32 lanpostura igotzeko behar den diru gehigarria hezitzaileen lanpostuak amortizatuz konpentsatuko da. Oraindik ez digute zehaztu zenbat lanpostu amortizatuko dituzten.

Horrenbestez, amortizatuko diren lanpostuak hutsik daudenak izango dira; hau da, ez dago hezitzailearik bertan atxikimendua duenik (ez behin-betikorik ez eta LEP artekorik). Hala ere, behar-beharrezkoak dira Haurreskolak Partzuergoko funtzionamendurako. Besteak beste, urtean zehar egiten diren lan metaketa kontratuak eta ordezkapenak diru honi esker egiten direlako, balizko LEP arteko kontratu berriak hutsik dauden lanpostu hauetan sortu daitezkeelako eta Lekualdatze lehiaketan lanpostu hauek eskaintzen direlako. Laburbilduz, hezitzaileen lanpostu kopuruan murrizketa dakar neurri honek.

13.4. artikulua, berriz, honela dio:

"Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomia Sailaren proposamenez, langile-zuzkidura berriak sortzeko baimena eman ahal izango du lanpostuen zerrendak honako arrazoik hauengatik aldatzen badira: eskumenen transferentziak benetan gauzatzen direlako, organo eta zerbitzu berriak sortzen direlako, kanporatutako edo azpikontraturiko zerbitzuen kudeaketa zuzena egiten delako, egiturazko lanpostu edo plazak finkatzen direlako, lege-mailako arauak aldarrikatzen direlako, edo Jaurlaritzak koiunturakoak ez diren planak, programak eta jarduera garrantzitsuak onartzen dituelako. Horretarako, finantzazio egokia beharko da beti, bai eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoaren alde aurreko aldeko txostena ere, non adieraziko baita ezinezkoa dela premia berriei aurre egitea lanpostuak berratzikita, langileak berrizendatuta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeko bestelako baliabideak erabilita."

Eusko Jaurlaritzak prozedura hau ezaguna zuen, nola ez, eta lotsagarria da oraindik lanean ez jarri izana. Denok dakigu horrelako lanek luze jotzen dutela, eta lanpostu berri hauek premiazkoak dira Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa alorrerako.

Azpimarratu nahi dugu, bukatzeko, azken mahai negoziatzailean aurreakordioaren sinatzaileen helburua hezitzaileen lanpostuen zerrendan izango duen eragina ezkatutzea izan zela. Akordioaren testutik "amortizazio" hitza kentzea izan zen beraien eskakizunetako bat. Era berean, epeei dagokienez, proposamenak besterik ez zituzten zehaztu, hauek betetzeko inongo bermerik gabe.

Idatzi hau probestu nahi dugu argi uzteko azken urteetan daramagun aldebakarreko dinamikak (akordio zabalagoak blokeatzea, adibidez) enpresa eta administrazioa bihurtzen dituztela garaile langileen arteko zein sindikatuen arteko elkarlana eta ulermenaren gaitetik. STEILAS sindikatuan, gure partetik, ahaleginak egiten jarraituko dugu hori horrela izan dadin.

